



INGUBE Proiektua

Erosketa iraunkorra ingurumen-sektorean:
balio-katearen iraunkortasuna



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiogu Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari, Ekonomia Zirkularreko Berrikuntzarako Dirulaguntzen Programaren (ETE Lerro Zirkularra), proiektu hau finantzatzeagatik eta, horrela, egiten uzteagatik.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu ACLIMari proiektu osoan zehar egindako lan dinamizatzailer eta bideratzaileagatik, ideia bat baino ez zenetik amaitu arte.

aclima
Basque Environment Cluster



Eta, azkenik, CIMASi, bere lanagatik eta egiten jakiteagatik, erosketa berdeko irizpide batzuk ezartzen ez ezik, gure erakundearen lan egiteko modu iraunkorrak txertatzen jarraitzeko beste ekintza-ildo asko ikusten lagundu digulako.



Proiektu hau garapen jasagarriko helburuekin lerrotzen da, zehazki, eta lortutako emaitzen arabera, zuzenean 12. helburuaren gainean erortzen da: ekoizpen eta kontsumo arduratsua.

Erosketa berdea da enpresa gisa garapen jasagarrian laguntzeko landu dezakegun alderdi ugarietako bat. Proiektu honetan gure jardueraren hornikuntza nagusiak zerrendatu eta antolatu dira, eta, ondoren, jardueraren barruan garrantzi erlatiboaren ikuspegitik lehentasunezko zatia jo direnak jorratu dira, bai eta erosketa berdearen irizpideak txertatzeko benetako aukera ere. Lehen urrats horrek gure jarduna eta jasangarritasunarekiko konpromisoa hobetzeko metodo bat erakutsi digu, eta metodo hori behar ditugun beste produktu eta zerbitzu batzuetara hedatzen jarrai dezakegu, eta gure erakundearen erosketen politika eta kudeaketa berri bat ezarri.